ARAUGINTZA VI ikastaroa



Artelanen izenak

Erantzun orriak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA
Zubiarte, 13
31620 Uharte. Nafarroa
848 431018 Faxa: 848 431022

EIBZren 'Araugintza VI ikastaroa' (Egilea: Josune Aznarez Alkat), Creative CommonsAitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

►191. araua: Artelanen izenak. Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak.

1.- Mizenasko sarrera nagusia Brontze Aroan. K.a. XIII. mendean eraiki zuten, eta izena sarreraren gainean dauden bi lehoi emeen irudiari zor dio: **Lehoien atea**

2.- Bibliako Genesi liburuan aipatzen den zigurat itxurako eraikina: **Babelgo dorrea**

3.- Gizako nekropoliko hiru piramideetatik handiena. Keops faraoiak eraikiarazi zuen: **Gizako piramide handia**

4.- Antzinako Grezian, hiriaren gainean kokaturiko gotorlekua. Guda garaietan jendeari babeslekua ematen zion: **Akropolia**

5.- Erromatar eraikuntza. K.o. I. mendearen bigarren erdialdean eta II. mendearen hasieran eraiki zen. Ura Segoviara eramaten zuen: **Segoviako akueduktua**

6.- Kareharrian zizelkaturiko soingain iberiarra, K. a. IV. eta K. a. V. mendeen artean datatua: **Elx-eko Dama**

7.- K. a. 827. urtean eraikitako monumentua, Asiriar Inperioaren garaian: **Obelisko Beltza**

8.- Egiptoko V. dinastiako eskulturak eman zuen estatuarik nabarmenenetako bat. K.a. 2480 eta K.a. 2350. urteen bitartean zizelkatu zuten: **Eskriba Eseria**

9.- Plinio Zaharraren idazkiengatik ezagutzen den eskultura. K.a. II. mendearen amaieran enkargatua eta haitzurdin bloke bakarrean zizelkatua izan zela dio. Aro helenistikoaren garaikoa da: **Farnese Zezena**

10.- Antzinako Erroman brontzez eginiko estatua bat izan zen, tamaina erraldoikoa (30 edo 35 metrokoa). Venus eta Erromaren tenpluaren aurrean zegoen: **Neronen kolosoa**

191. araua (PDF)

EIBZren 'Araugintza VI ikastaroa' (Egilea: Josune Aznarez Alkat), Creative CommonsAitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

►193. araua: Artelanen izenak. Arkitektura.

1.- Granadako jauregi eta gotorleku multzoa: **Alhambra**

2.- Ameriketako Estatu Batuetako presidentearen bizilekua: **Etxe Zuria**

3.- Arte hispano-arabiarreko lan gorenetako bat: **Kordobako meskita**

4.- Frantziako errege-jauregia, Île-de-France eskualdean: **Versaillesko jauregia**

5.- Istanbulgo meskita nazionala: **Meskita Urdina**

6.- Parisko 8., 16. eta 17. barrutien elkargunean dagoen monumentua: **Garaipen-arkua**

7.- Veneziako eliza katoliko garrantzitsuena eta Venetoko eragin bizantziarraren maisulana: **San Marko basilika**

8.- Sevillan dagoen jauregi motako eraikin multzoa: **Sevillako alkazarra**

9.- Agra hirian (India), Yamuna ibaiaren ertzean, dagoen mausoleo handia: **Taj Mahal**

10.- Txinatar inperioa iparraldeko mongoliar eta mantxuriar nomaden erasoetatik babesteko eraiki ziren harresi multzoa: **Txinako Harresi Handia**

193. araua (PDF)

►194. araua: Artelanen izenak. Pintura, argazkigintza eta eskultura.

1.- Pizkundeko eskulturaren maisulana: **David**

2.- Rio de Janeiro hirian dagoen Jesu Kristoren estatua erraldoia: **Kristo Erredentorea**

3.- Louise Bourgeois frantziar artistaren eskultura handia, armiarma bat irudikatzen duena: **Maman**

4.- Auguste Rodinen brontzezko estatuarik ezagunenetakoa: **Pentsalaria**

5.- 1511 inguruan Michelangelok Kapera Sixtinoaren gangan margotutako freskoa: **Adamen kreazioa**

6.- Vincent Van Gogh margolariak 1889an egindako olio-pintura: **Gau izartsua**

194. araua (PDF)

EIBZren 'Araugintza VI ikastaroa' (Egilea: Josune Aznarez Alkat), Creative CommonsAitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

►195. araua: Artelanen izenak. Musika.

1.- Piotr Ilitx Txaikovski errusiar musikagileak konposatutako balletetako bat izan zen. Lehenbiziko aldiz Moskuko Bolxoi antzokian taularatu zuten, 1877an: **Beltxargen aintzira**

2.- Bi zatiko ballet obra, Ernst Theodor Amadeus Hoffmannen ipuin batean oinarritutakoa. 1893ko abenduaren 15ean estreinatu zen, Mariinski antzokian, San Petersburgon: **Intxaur-hauskailua**

3.- Georges Bizeten lau aktoko opera, 1875ean konposatua: **Carmen**

4.- Wolfgang Amadeus Mozart bizirik zegoela eszenatokian agertutako azken opera izan zen. 1791ko irailaren 30ean Viena hiriko Theater auf der Wieden antzokian estreinatu zen: **Txirula magikoa**

5.- Antonín Dvořák konposatzaile txekiarraren sinfoniarik ezagunena. 1893an konposatu zuen, AEBn eman zuen denboran: **Mundu Berriko sinfonia**

6.- Antonio Vivaldi italiar musikagileak biolin eta orkestrarako egindako lau kontzertuen izenburua: **Lau urtaroak**

195. araua (PDE)

EIBZren 'Araugintza VI ikastaroa' (Egilea: Josune Aznarez Alkat), Creative CommonsAitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.